

## HITZAREN ESKOLA / IRAKASLEEN FITXA

**IRAKASLEA:** Irati Gorostidi Agirretxe

**DATA:** 2023ko urriaren 14tik azaroaren 4ra

### **AZALPENA:**

Zine gidoigintzan erabiltzen diren arauekin aritu gara lanean ariketa moduan. Nola erabiltzen dugu hitza beste disziplina baten sorkuntza plangintzaren zerbitzura dagoenean?

Saioetan egin dugun lanaren muina izan da narratibotasuna definitu eta pentsatzea modu kritikoan.

Tramaz, argumentuaz eta korapiloa eta gatazkaren arteko harremanari buruz aritu gara.

Adaptazio ariketak egin ditugu, filmeetan ereduak bilatu ditugu, dialogoei buruz haritu gara, arreta jarriz zein tratamendu ematen zaien hitzei dialogoan kasuan eta zergatik.

Pentsatu dugu anbiguotasunean oinarritutako testu literarioen sorkuntzan, esanahi-geruza desberdinak dituzten idatziak sortzeko proposatuz digresioa, dibagazioa eta zalantza.

Amaitzeko, Arantza Santesteban opakutasunari buruz aritu zaigu.

### **AURKIBIDEA (saioen eskema laburra)**

#### **1. Saioa**

1. Beroketa ariketa: mahaspasa.
2. Ingeniaritza eta brikolajea: sorkuntzan ekiteko bi modu.
3. Gidoigintzaren arauak errekurtsio literario bezala.
4. Zer da narrazio bat?
5. Adaptazioa.

#### **2. Saioa**

1. Chantal Akerman-en *Jeanne Dielman, 23 Quai du Commerce, 1080 Bruxelles*
2. Adaptazioa. Ariketen irakurketa.
3. DIALOGOAK. Zer dira dialogoak testu narratibo batean?

#### **3. Saioa**

1. Euritan.
2. Gaizki idaztea.

3. Dibagazioa, digresioa eta zalantza.

**+ Irakasle gonbidatuaren saioa**

**1. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala...).

**1. Beroketa ariketa: mahaspasa**

Mahaspasa baten miaketa gidatua.

Ariketa: idatzi zerbait mahaspasari buruz (edozein formatutan).

**2. Ingeniaritza eta brikolajea**

Sorkuntzari ekiteko bi modu: **ingeniaritza** baliabideak aprobetxatzeko teknikak erabiltzera bideratuta dago.

Zerbait eraikitzeko plangintza bat egiten da kalkuluen eta neurketen bidez, marrazkiaren bidez etab. **Brikolajea** berriz eskulana da. Materialak aurrean edukita egituratzen da lana. Erabakiak material disponibleekin kontaktuan hartzen dira.

Sortzaile batzuek ingeniari gisa egiten dute lan, beste batzuek brikolajearen antz handiagoa duten prozesuak erabiltzen dituzte.

Adibidez, zinemagintzaren kasuan:

- Lan egiteko modu ohikoenean baliabideak aprobetxatzeko gidoiak idazten dira, aldez aurretik filmatu behar den guztiaren plangintza sakona egiten da. (Ingeniaritza)
- Beste aukera bat da plangintza hori egin gabe eta gidoi bat idatzi gabe filmatzea eta muntaketa-fasean filmatutako materiala antolatzea. Aldez aurretik egitura zein izango den jakin gabe. (Brikolajea)

Zinemagintzan muga pilo batekin lan egiten dugu. Muga teknikoak eta muga materialak, fisikoak. Baliabide asko behar dira eta aukerak oso mugatuak dira.

Idazkera, neurri batean, kontrako muturrean dago: oso baliabide gutxirekin (arkatz bat eta paper bat) aukerak infinituak dira (horregatik idazten dira gidoiak pelikulak egin baino lehen).

Zinemagintzan lanean hasi nintzenean brikolajearen joera hartu nuen. Baina azken urteetan gidoiak idazten hastea tokatu zait. Oso zaila egin zait, hain zuzen ere, muga faltagatik, aukerak amaigabeak direlako.

### 3. Gidoia

Zinemagintzan gidoiak, sorkuntza prozesuaren tresna bezala erabiltzen dira. Gida bat bezala alde zuzenetik pelikula zer izango den azaltzeko, finantzaketa lortzeko eta errodajearen antolakuntzan ekipo osoari asmoa komunikatzeko.

Normalean, gidoia ez da balio literario bat izan behar duen testua bezala pentsatzen. Irakurtzeko oso astunak izaten dira gehienetan, eta idazteko ere bai.

Arau oso zurrunik erabiltzen dira gidoiak idazteko\*:

- Ikusi eta entzuten diren gauzen deskribapenak bakarrik idatzi daitezke.
- Orainaldian.
- Hirugarren pertsonan.

\*Dialogoetan izan ezik, noski

Adibidez: ikusten diren aditzak bakarrik erabiltzen dira: “ibili, begiratu, tolestu...” bai / “pentsatu, ulertu, maitatu...” ez.

Proposamena: gidoigintzaren idazketan erabiltzen diren arau/muga horiek erabiltzea errekurtsio literario bezala.

## 2. ARIKETA

Idatzi sekuentzia bat:

Hipodromo batean, gizon gazte batek emakume bati poltsan daraman dirua lapurtzen dio zaldi lasterketa begiratzen duten bitartean, emakumearen distrakzioa aprobetxatuz.

Saiatu, gidoigintzaren arauen baitan, testuaren ezaugarri literarioetan pentsatzea, deskribapenak baino ez badira ere.

Idatzi ondoren:

Erreparatu zenbat gauzarekin eraikitzen ditugun edozein akzioen deskribapenak. Erreparatu aurreiritziei, aurretik ditugun ideia horiek nola baldintzatzen gaituzte ekintzak konposatzerakoan?

Erraza da geure esperientziatik kanpo dagoen pertzepzio bat erreproduzitu ahal dugula sinestea. Hori saihesteko, adi egon behar ginateke idazten ari garen horren aurrean, eta gure esperientzien eta kontaktzen ari garenaren arteko distantziari erreparatu. (Gogoratu mahaspasaren ariketa)

*Munduarekiko hurbiltasuna da kontaktzen duen pertsona batek duen gauzarik preziatuena. Narratzailearen lana da berriz mundura bota bagintuzte bezala ikustea. - Lucrecia Martel*

#### **4. Zer da narrazio bat?**

Eztabaida: zerbait “narratiboa” dela esaten dugunean, ze ezaugarri izaten ditu?

Lucrecia Martelen klase batean hartutako apunteen irakurketa.

Narrazioa eta gatazka.

Zer da argumentua?

#### **5. Adaptazioa**

### **3. ARIKETA**

Datorren saiorako:

Egin adaptazio bat. Zuek idatzitako testu bat (hobe) edo beste norbaiten testua (nobela baten kapitulu bat, poema bat, ipuin bat...).

Gidoiaren arauekin berridatzi: ikusi eta entzuten diren gauzen deskribapenak bakarrik, orainaldian, hirugarren pertsonan.

## 2. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala...).

Jean Epsteinen aipuaren irakurketa.

“Bonjour cinéma” testuan, Epsteinek ekintza dramatikoaren aurkako manifestu bat eraikitzen du. “Irudi hutsen” lengoia osatuko duen zinemaren alde egiten du, medio berri honekin, «pentsamendua eta gauzak, kanpoko eta barrukoa ehundura berean harrapatzeko aukera ematen duena, modu sentikor eta ulergarrian».

Bururatzen al zaizkigu gatazkaren edo korapiloaren inguruan egituratzen ez diren testu edo film narratiboan adibideak?

(aipatu ziren: Joy Williams idazlea, Pedro Páramo eleberria...)

4. Chantal Akerman-en *Jeanne Dielman, 23 Quai du Commerce, 1080 Bruxelles* filmeko bi sekuentzia irakurriko ditugu.

Ikusten ditugun ekintzak, deskribatzen diren ekintza guztiek tramaren aurrerakuntza ahalbidetzen dute? Ekintzak beren esanahien arabera koreografiatuta daude?

Erreparatu: zuzendariak aktoreari zer jarraibide ematen dizkio eta zer eskatzen du aktoreak (keinuaren erritmoari buruzko azalpenak vs. pertsonaiaren ezaugarri psikologikoak)

5. Adaptazioa: ariketak irakurri.

Nolakoa izan da adaptazioaren ariketa? Zer zailtasun izan dituzue?

## 6. DIALOGOAK

Zer dira dialogoak testu narratibo batean? Zer funtzio betetzen dute? Zertarako balio dute?

Saioan atera ziren ideiak:

- Dialogoak pertsonaiek esaten dituzten hitzak dira. (Gidoi zinematografiko baten kasuan: entzuten diren hitzak)
- Guztiz ahozkoa den hizkera erabiltzeak ez du funtzionatzen, baina sinesgarria izan behar du pertsonaiak modu horretan hitz egingo lukeela. Aukera estilistikoa izan daiteke dialogoak ahozkoa ez den modu batean idaztea.

- Deskribatu ezin diren gauzak azaltzeko erabiltzen dira. Edo gauzaren bat hobeto deskribatzeko.
- Dialogoak erabili beharko lirateke zerbait adierazteko hitza denean modurik egokiena.
- Horrela bakarrik azaldu daitekeen zerbait azaltzen dutenean.

ARIKETA: Idatzi egoera bat dialogo honekin:

Bi pertsonai, batak besteari.

- Ez dut geratzea nahi.
- Gose naiz.

Irudikatu egoera bat bi esaldiak dialogotzat dituen, idatzi sekuentzia bat gidoi formatuan.

Dialogoen jatorria (ariketa egin ondoren ikusi):

Je, tu, il, elle (1974) Chantal Akerman. (Sekuentzia)

### 3. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala...).

“Euritan”-en zati bat.

*Errepasoa:*

Dialogoen forma.

- **Nola erabiltzen dugu hitza dialogo batean? Ze antzekotasun eta desberdintasun duakate ekintzak deskribatzeko erabiltzen diren hitzek eta esaten diren hitz horiek?**

Dialogoen ariketaren irakurketa.

Gidoigintzaren formatua: ez gidoiak idazten ikasteko, baizik eta gidoigintzaren arauak muga auto-inposatu bezela erabiliz idaztea, "idazketa kreatibo" ariketak izango balira bezela.

Oso deskriptiboa/objektiboa den idazketa bat egitera behartzen gaituzten arauak.

## NARRATIBOTASUNA

1. saioko eztabaidan atera ziren ezaugarriak:

### **Narratiboa da =**

- Ekintzak jasotzen ditu.
- Egitura bat dauka.
- Zerbait ulertzera garamatzen kontakizuna.
- Bilakaera bat dauka.
- Narrazioa bisibilizatzen dugun eta ezkututzen dugun horren artean kokatzen da.
- Narratiban esaldi osoak daude.
- Zerbait deskribatzen du.
- Narrazio klasikoak:
  - sarrera / hasiera
  - korapiloa
  - ondorioa / bukaera
- Tramaren edo argumentuaren inguruan egituratzen da.
  - Zer da trama/argumentua?
    - Egitura klasikoan korapiloa bezala ezagutzen dugunarekin lotua.
    - Narrazio baten gakoa da.
    - Egitura bat da.
- Narratiboa den zerbait ikusmolde baten adierazpena da.

### **Narratiboa ez da =**

- Inkoherentea, desordenatua, soltea.
- Lirikoa, irudiei lotuta dagoena.

### Narrazio bat ikusmolde baten adierazpena da.

Sorkuntzari ekiteko bi moduak: aurretik plangintza bat eginez edo gabe.

Sara Mesa sorkuntza literarioari buruz.

Idazle batek begiratzeko [aukeratzen] duen tokia. Gauzak ikusteko kokalekua.

Hitzaldiaren amaieran, Sarak proposatzen du **gaizki idaztea**.

Edo idazketa modu argi, ordenatu eta zentratuan ez garatzea.

Edo zeharkako begirada batekin idaztea. Helmuga edo objektibo jakin bat izan gabe aritzea.

### **Dibagazioa, digresioa eta zalantza** aldarrikatzen ditu.

Zekale artean harrapaka (Salinger):

*“Batzuek ez dakite zer interesatzen zaien aspertzien dien zerbaiti buruz hitz egiten hasi arte”*

- Zer da digresioa? eta dibagazioa? eta zalantza?

#### DIGRESIOA

Bidetik ateratzea.

Sabotajea.

Etendura bat.

Mozketa bat.

Moztu duen gaiarekin ez dauka lotura argirik.

Deskantsu bat.



Narrazio edo hitzaldi batean egiten den mozketan, gai nagusiarekin lotura sakon edo argirik ez daukan zerbaitekin, besterik gabe.

#### DIBAGAZIOA

Deriba.

Zentzugabekoa.

Azterketan sartzen ez den guztia.

Asmo zehatzik gabe esaten dena.

Asmo finko eta zehatzik gabe hitz egitea edo idaztea.

#### ZALANTZA

Froga.

Galderak.

Etendura bat galdera moduan agertzen dena.

Gainditu beharreko zerbait.

Oztopoa.

Asmoa etetea edo zehaztugabe uztea erabaki baten aurrean.

Hirurek amankomunean daukate **linealtasunarekin haustura**.

**IRAKASLE GONBIDATUAREN SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala...).

Saiatu naiz saiora ekartzen *918 gau* filma egiterakoan, batez ere off ahotsa jartzerakoan, hitzarekin egin nuen lanketa hori. Horretan Irati Gorostidik lagundu ninduen eta iruditu zitzaidan guztiz egokia izan zitekeela Hitzaren Eskolara hain zuzen ere ekartzea guk hitzaren bueltan eduki genuen sortze prozesua.

Horrekin batera ekarri dut baita ere guk nondik abiatzen ditugun askotan lanerako prozesuak, eta hitzarekin dugun harremana saiaturen garela ateratzen literaltasunaren ideia horretatik. Hitza ez dugu erabiltzen, ezta irudia ere, gauza literalak adierazteko. Guretzako, baita *918 gau* egin genuenean ere, inportantea zen ihesbideak aurkitzea, hitzaren bidez eta irudien bidez, nolabait, hitzetatik, eta diskurtsoetatik, irudien narrazioetatik espero zen hori nolabait saihesteko. Orduan, aritu gara batez ere saihesteko horiek erabiltzen ditugunean nola agertzen diren beste gauza batzuk, agian iluntasunean zeudenak, edo agian deskartatzen direnak, edo agian ez direnak

hain errelebanteak oso egituratuta dauden diskurtsoetan. Prozesu horiek esplikatzen saiatu gara.

**BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK** (erabilitako liburu, pelikula, artelan eta bestelako artefaktuak; egile eta iturri nagusien erreferentziak eta estekak)

*La Ciénaga.* Lucrecia Martel (pelikula)

*Pickpocket.* Robert Bresson (pelikula)

*Bonjour cinéma* Jean Epstein (liburua)

*Jeanne Dielman, 23 Quai du Commerce, 1080 Bruxelles.* Chantal Akerman (pelikula)

*Je, tu, il, elle.* Chantal Akerman (pelikula)